

113 positibo berri
1.898 hildako EAEn
10.436 positibo guztira* UCI EAEn

363 positibo berri
564 hildako
17.242 positibo guztira UCI Nafarroan

*HERNANIN 332, ASTIGARRAGAN 61

Antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen 'show'a, etzi izango dute ikusgai hernaniarrek

Asteazkenean, *Esnatu naiz* ikuskizuna eskainiko du Andoni Mutiloa hernaniarrek, arratsaldeko 20:00etan hasita, Biterin. Kabaret honetan, antzerkia, dantza eta musika nahasten ditu, identitatea, giza harremanak eta sexualitatea hizpide izanik.

HERNANI 'ESNATU NAIZ'

Esnatu naiz Kabareta izango dute hernaniarrek ikusgai, etzi. Izan ere, aspalditik izan du Andoni Mutiloak Hernanin ikuskizun hau eskaintzeko gogo, eta heldu da momentua. Asteazkenean, antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen showa eskainiko baitu, Biterin arratsaldeko 20:00etan hasita, eta gainera, estreinaldia izango da, bertsio luzea aurkeztuko du lehen aldiz Hernanin.

Antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen Kabaret honetan, identitatea, giza harremanak eta sexualitatea izango ditu hizpide, besteak beste.

Esnatu naiz, aurtengo Antzerki Sorkuntza Lehiaketaren edizioko komedia finalista da, Andoni Mutiloa egilea izanik, Elur Etxea konpainiaren eskutik.

«Pello da protagonista, gaztea eta baserritarra, Pello konturatzen da bere egunerokotasunean ezin duela bera izan.



Andoni Mutiloa, promoziorako argazkian.

Hor abiatzen da benetan nor den kontatzen, nondik datorren eta zer nolako bizipenak izan di-

tuen ordura arte azken hamar urteetan. Obran ikusi daiteke zer bizipen eta aldaketa izan

dituen Pelloren bizitzak maila pertsonalean, batez ere, eta profesionalean». K

Martxan da Moriako errefuxiatuei laguntzeko janari bilketa Astigarragan, eta ostiral arte iraungo du

Irailaren 8an, Moriako errefuxiatuen esparruan gertatutako sutearen «ondorio latzak ikusita», Zaporeakek larrialdiko janari bilketa antolatu du Euskal Herrian. Hori horrela Astigarragako Udalak bat egin du eta urriaren 2ra arte egingo da elikagai bilketa.

ASTIGARRAGA ELIKAGAI BILKETA

Irailaren 8tik irailaren 9ko goiz aldera, Moriako errefuxiatuen esparrua erre zen goitik behera. Une hartan, 13.000 errefuxiatu zeuden bizitzen, eta «bapatean, errepide bazterretan bizitzera igaro ziren kale egoeran geratuz». Lehenengo egunetan «ez zuten asistentziarik jaso Greziaren gobernuaren aldetik, ber-

tan zeuden GKE-en asistentzia humanitaria izan zuten soilik».

Aipatutako egoera honetan, Zaporeakek, «inoiz baino otordu gehiago sukaldatu zituen». Hala ere, suak hartutako esparrua 5 egunetan berreraiki dute, Mitilini hiriburutik gertu, kostaldean. Kanpamendu berri horretan, 9.500 errefuxiatu sartu dituzte, «5.000 pertsonentzat egokituta

dago. Errefuxiatu hauek haien gogoz kontra eraman dituzte bertara, eta helburua lehenagoko egoerara itzultzea izanik, hau da, pertsona errefuxiatuak Greziako irletan konfinatuta edukitzea, Europako Batasuneko herrialdeek gaian esku hartzen ez duten bitartean».

Astigarraga, Moriako errefuxiatuekin bat

Larrialdi egoera honetan, Zaporeakeko sukaldia eta lan taldeak lanean jarraitzen dute, eta Astigarragak bat egin du. Hori horrela, janari bilketa jarri du martxan, ostiral arte.

Bilketa elikagaiak

Arroz luzea, makarroiak, laka-riak (dilistak, txitxirioak, ba-



Komertzioetan elikagaiak uzteaz gain, Herri Eskolan uzteko aukera ere badago.

barrunak), atuna eta sardinak latan, oliba olioak, espeziak (piperbeltza, piperbeltz zuria, kuminoa...), esne hautsa eta barri- ta energetikoak.

Parte hartu duten, komertzioak

Alicia frutadenda, Coviran Isa-

bel, Coviran Ainhoa, Zubitxo fruta denda, Ezpela natur denda eta Eroski.

Udalak gaineratu du, komertzio hauetan elikagaiak uzteaz gain, Herri Eskolan uzteko aukera ere badagoela. Azkenik, gogoratu elikagai bilketa, ostiral arte egingo dela. K

ALAI
ODONTOLOGIA ZENTROA

PREBENTZIO ETA KONTSERBAZIO ODONTOLOGIA
HORTZ ESTETIKA
AHO KIRURGIA
INPLANTEAK
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA
PERIODONTZIA
ORTHOAPNEA

ODONTOPEDIATRIA
ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK
TELERRADIOGRAFIK
3D SCANNERRA
AHO BARRUKO SCANNERRA
KIRURJIA NABEGATUA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA
Astelehenetik ostiralera: 08:30 - 21:00
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

Antziola 11, behea. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alai clinica.com alaihernani@gmail.com

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Zerbitzu partikularrak eta asperu etxeekin Beilatokiak
Erresketak Lekuak, korak...

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora
24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA
Zentrala Latsunbe 7, Hernani

EGURALDIA
GAUR Gaur giroa argituz joango da. Goizean, hodei baxuak gailenduko dira ipar partean. Arratsalderako, ordea, giroa lehortsu eta ostare zabalak irekitzen joango dira. **Min.10° / Max.18°**

BIHAR Biharko giro lasaia dator, hodei tartekin. Hodeiak, oro har, erdi mailko hodeiak eta goi-hodeiak izango dira, ugariagoak egunaren lehenengo partean. Norabide aldakorreko haize ahula ibiliko da egunear zehar. **Min.10° / Max.20°**

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Errotzeko Auzo Udala

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla Urbietara, 7 (Hernani) 943 552941** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ISUNO JUANABAZTA
GOBIERNO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

PEFC



'Manzanas, pollos y quimeras' dokumentaleko irudia.

Emakumeen arteko topaketa bihar, Migrazineak antolatuta

Bihar, arratsaldeko 18:30etan, *Manzanas, pollos y quimeras* dokumentala jarriko du Migrazineak Biterin, eta emakumeen arteko topaketa izango dela gaineratu nahi izan dute.

HERNANI MIGRAZINEA

Pasa den asteazkenean hasi zen Amherrek antolatutako Migrazinea ekimena, «migrazioaren gaiak dituzten filmak aztertu eta eztabaidatzeko saioetan» oinarriturik.

Bihar, Plaza Feministaren

kolaborazioarekin batera, Inés Parísen dokumentala izango da ikusgai, *Manzanas, pollos y quimeras* hain zuzen. Dokumental honetan lanbide ezberdinak dituzten emakume afrikarrek, beraien migrazio-bizipenei buruz hitz egiten dute.

«Lali ginearra da. Espainiara

etorri zen marinel batek kontatu ziolako gure herrialdean sagarrak baloiak bezain handiak zirela eta oilasko erraldoiak zebiltzala Kale Nagusian. Lali da beren errealitatea eta barne-barneko sentimenduak erakusten dizkiguten emakumeetako bat; beren bizi-proiektua, itxaropenak eta kimerak, Espainiako gizartean ahaztuta eta ikusezin dagoen emakume talde bati ahotsa eta aurpegia ematen dion dokumental honetan: Afrikako emakume beltzak, hain zuzen». **K**

Urriaren 16ra arte dago aukera, Kromiki lehiaketan parte hartzeko

Dobera Euskara Elkarteak, Kromiki lehiaketa jarri du abian, «gazte zein helduen artean euskal kultura sorkuntza eta irakurzaletasuna sustatzeko asmoz». Urriaren 16ra arte dago aukera parte hartzeko.

HERNANI KROMIKI LEHIAKETA

Kromiki lehiaketa jarri du martxan Dobera Euskara Elkarteak. Jatorrizko lanak, urriaren 16ra arte aurkeztu ahal izango dira, gainera lanak euskarri fisikoan zein digitalean aurkez daitezke, «eta bai batean zein bestean, pilka-sistema erabiliko da, lehiaketaren gardentasuna bermatzeko».

Kromikia euskarri fisikoan aurkezteko, Doberaren bulegora eraman beharko da, gutun-azal baten barruan sartuta aurkez-

tuko da Kromikia. Gutun-azalaren baitan, Kromikia egoteaz gain, pilka sartuko du beste gutun-azal txikiago batean. Pilkan, izen abizenak, adina, zer kategoriataratu aurkeztu den eta harremanetarako datuak idatziko ditu egileak. Eta gutun azal txikiaren kanpoaldean berri, bere izengoitia, idatziko du.

Lana digitalki aurkezteko, PDF formatuan bidaliko da, dobera@dobera.eus helbidera. Eta aurreko sistema bera erabiltzeko, bi dokumentu bidaliko ditu egileak, bat Kromikia bera, eta

bestea pilka.

Gaia eta formatua

Kromikiak Hernanirekin zerkusia izan behar du, eta ez du beste inon aurkeztua izan behar. Euskaraz idatzia izango da, 26 X 7,3 zentimetroko tamainakoa hain zuzen. Zuri beltzean, zein kolorez egin daiteke, eta ez dute agerian egilearen izenik edo sinadurarik eramango.

Epamahiaren epaia eta sari banaketa

Epamahiaren epaia, azaroaren 2a baino lehen jakinaraziko zaie saridunei, Doberak gainera Sare Sozialetan eta webgunearen bidez zabalduko ditu irabazleen izenak. Horrez gain Kronikan ere argitaratuko dira, irabazleen izenak. Sarien berri, www.Kronika.eusen. **K**

PSE-EEko zinegotzi berria, Jesus María López

Hernaniko PSE-EEko María Jesús Egido zinegotziaren lekukoa hartuko du, biharko plenoan Jesús María López hernaniarrak.

HERNANI PSE-EE PRENTSA OHARRA

Bihar, Osoko Bilkura egingo da Hernaniko Udalean, eta gai zerronden artean, Hernaniko talde sozialista ordezkaturako duen zinegotzi berria izendatuko da, Jesús María López Sanchez hain zuzen. Honek, María Jesús Egidoren lekukoa hartuko du, pasa den ekainaren 30ean dimititu zuten, bi legegintzaldi iraun ondoren zinegotzi gisa.

Hori horrela, Ricardo Cres-

po, Hernaniko PSE-EEko bozeramaileak ohar batean, «ongi etorria eman dio zinegotzi berriari, udalbatzako kide gisa», eta eskerrak eman dizkio María Jesús Egidori, orain arte egindako lanagatik, erakutsitako konpromezuagatik, eta lankidetzagatik.

Crespok azaldu du, «zinegotzi berria, hautagai independentea dela, politikan ibilbide luzea egindakoa». Eta gaineratu du eskarmentu eta harreman handia duela auzo elkarrekin, «pertsone mugitua» da.

Jesus María, 1976garren urtean jaio zen Hernanin, CAFeko elektrizista da, eta bere burua honela definitzen du: «errepublikarra, ezkerrekoa eta Hernaniko herritarren alde lan egiteko interesa duena». **K**

Udal kiroldegiko ikastaroetan izena emateko azken eguna, gaur

HERNANI IKASTAROAK

Gaur amaitzen da Hernaniko Udal Kiroldegiko gazteentzat zuzendutako ikastaroen izen emate epea. Link honetan egin daiteke: <https://labur.eus/yEdkG> edo kiroldegiko bulegora bertaratu.

Pentsionistak gaur, plazara

HERNANI PENSIONISTAK

Gaur eguerdiko 12:00etan, Hernaniko plazan agerraldia egingo dute pentsionistek, petsio duinen alde eginez.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JOSE ANGEL MUÑOZ VELASCO
(KOTIAN)

Gogoan izango zaitugu

ZURE KUADRILA

Hernanin, 2020ko irailaren 28an

JOSE ANGEL MUÑOZ VELASCO
(KOTIAN)

Zure lagunak

TEO ETA KARMEN

Hernanin, 2020ko irailaren 28an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**